

Azpeitiko Liburutegiak 10 ipuin kontaketa antolatu ditu

AZPEITIA. Azpeitiko udal liburutegiak datorren astelehenean abiatuko du 21 urtez jarraian Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatzen duen ipuin kontaketen egitasmoa.

Aurtengo edizioa 2010. urtea amaitu arte luzatuko da eta hurrek hamar saio desberdinekin disfrutatzeko aukera izango dute. Denak, udal liburutegian izango dira, 18.00etan hasita.

Ekimenaren arduradunek azaldutakoari eutsiz, 'saioak lau eta bederatzi urte arteko haurrentzat zuzenduta egongo dira'. Aurtengo ipuin kontalariak, berriz, Pello Añorga, Lupe Lekuona, Maite Franko, Mirian Mendoza eta Kontu-Kontari taldea izango dira.

Azken konpainia horrek eta Pello Añorgak hiruna saio eskainiko dituzte, Lupe Lekuonak eta Miriam Mendozak saio bana eta Maite Frankok bi saio. Emanaldien egitaraua Kontu-Kontarik egitasmoaren saioak irekiko ditu datorren astelehenean Udal liburutegian, sei eta bedera-tzi urte arteko haurrentzako kontaketa batekin, hain zuzen ere (Lehen Hezkuntzako 1-4 mailakoentzat).

Talde berak ekimenaren hurrengo bi saioak eskainiko ditu. Bigarrena bost urteko umeentzat izango da (hilaren 27an) eta hirugarrena, lau urtekoentzat (urriaren 4an).

Laugarren ipuin kontaketa urriaren 18an izango da, Pello Añorgaren eskutik (sei-bederatzi urte) eta bosgarrena urriaren 25ean.

Egun horretan, ipuin kontalaria Maite Franko izango da eta bere saioa bost urteko hurrei zuzenduta egongo da. Hurrengo saioa ere Maite Frankok eskainiko du, azaroaren 8an, hain zuzen ere.